



## 2023KO URTARRILAREN 25EAN UDALBATZA PLENOAK EGINDAKO OHIKO BILKURAKO AKTA

### 49. BILKURA

Azkoitia Hiri Prestu eta Leialeko udaletxean, bi mila eta hogeita hiruko urtarrilaren 25ean, arratsaldeko zazpitan elkartu da Udalbatza Osoa, lehenengo deialdian. Ohiko bilkura honetarako deialdia behar bezala egin da eta eguneko aztergai zerrendan jarri diren gaiak aztertu eta ebatzi dira.

Javier Zubizarreta Zubizarreta Alkate jauna (EAJ-PNV) izan da batzarburua, honako zinegotziak bertaratu direlarik:

Ana Azkoitia Urteaga A. (EAJ-PNV).  
Imanol Arrizabalaga Larrañaga J. (EAJ-PNV).  
Marijose Arregi Etxeberria A. (EAJ-PNV).  
Sonia Vazquez Tejerina A. (EAJ-PNV).  
Angel Luis Martin Rodriguez J. (EAJ-PNV).  
Mertxe Zubillaga Albizu A. (EAJ-PNV).  
Juan Bautista Mendizabal Juaristi J. (EAJ-PNV).  
Ainara Goenaga Andueza A. (EH BILDU).  
Laida Beristain Zubizarreta A. (EH BILDU).  
Mikel Zengotita Alberdi J. (EH BILDU).  
Itziar Joaristi Olariaga A. (EH BILDU).  
Angel M<sup>a</sup> Etxeberria Ibarguren J. (EH BILDU).  
Ane Miren Peña Larrañaga A. (EH BILDU).  
Jose Joakin Etxaniz Peña J. (IRABAZI-AZKOITIA BAI).  
Janire Igoa Merino A. (PSE-EE).

Ezin etorria: Iraitz Otaño Mujika J. (EH BILDU).

Idazkaria: Unai Urkijo Rodriguez, Udal Idazkaria.

### **1.- AURREKO BILKURETAKO AKTEN ONESPENA, HALA BADAGOKIO.**

Alkate Jk. adierazi du 2022ko abenduaren 1eko aktan, Itziar Joaristi andreak antzemandako akatsa zuzenduko dela.

Atzemandako akatsa honakoa da:

#### **“AKATS ZUZENKETA ABENDUAREN 1EKO BILKURA OSOAREN AKTAN KONTUAN HARTZEKO**

Abenduaren 1eko bilkura osoaren deialdiaren 9. Puntuan kreditu aldaketa espedientearen onarpena:



AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Kreditu transferentzia 4/2022 irizpena bozkatu zen.

Irizpen honek akats aritmetikoa zuen, baina inolako ondorio ekonomikorik gabe. 2 kapituluko behin betiko kredituen gehiketan, turismoko partida ez zegoen gehitua. Horiz azaltzen da okerra den kopurua.

**KREDITU ALDAKETA ESPEDIENTEA 4 ZKIA KREDITU TRANSFERENTZIAK**

**PARTIDAS DE GASTOS CUYOS CRÉDITOS SE TRANSFIEREN (BAJAS)**

PARTIDA PRESUPUEST.	DENOMINACIÓN/IZENA	Haserako kreditua	Jeitsiera	behin betiko Kredituak
6100,221,132,00,05 2022	Segurtasunerako jazkiak	12.000,00	5.000,00	7.000,00
6100,221,132,00,02 2022	Udaltzaingoaren ibilgailuen erregaia	4.000,00	2.000,00	2.000,00
6100,221,132,00,99 2022	Hainbat materialen erosketa	12.000,00	8.000,00	4.000,00
8000,226,432,00,00 2022	Turismo eta ondare jarduerak	25.000,00	3.200,00	21.800,00
<b>GUZTIRA KAP 2</b>		<b>53.000,00</b>	<b>18.200,00</b>	<b>13.000,00</b>
1 2000,622,920,00,02 2022	Pabeloi erosketa Oinartxon	726.500,00	31.000,00	695.500,00
<b>GUZTIRA KAP 6</b>		<b>726.500,00</b>	<b>31.000,00</b>	<b>695.500,00</b>
1000.933.011.00.00	Maileguen amortizazioa	692.062,58	6.000,00	686.062,58
<b>GUZTIRA KAP 9</b>		<b>692.062,58</b>	<b>6.000,00</b>	<b>686.062,58</b>
	<b>GUZTIRA</b>	<b>1.471.562,58</b>	<b>55.200,00</b>	<b>1.394.562,58</b>

Taula honen akats aritmetikoa zuzenduta, horrela izango litzateke taula zuzena:

PARTIDA PRESUPUEST.	DENOMINACIÓN/IZENA	Haserako kreditua	Jeitsiera	behin betiko Kredituak
6100,221,132,00,05 2022	Segurtasunerako jazkiak	12.000,00	5.000,00	7.000,00
6100,221,132,00,02 2022	Udaltzaingoaren ibilgailuen erregaia	4.000,00	2.000,00	2.000,00
6100,221,132,00,99 2022	Hainbat materialen erosketa	12.000,00	8.000,00	4.000,00
8000,226,432,00,00 2022	Turismo eta ondare jarduerak	25.000,00	3.200,00	21.800,00
<b>GUZTIRA KAP 2</b>		<b>53.000,00</b>	<b>18.200,00</b>	<b>34.800,00</b>
1 2000,622,920,00,02 2022	Pabeloi erosketa Oinartxon	726.500,00	31.000,00	695.500,00
<b>GUZTIRA KAP 6</b>		<b>726.500,00</b>	<b>31.000,00</b>	<b>695.500,00</b>
1000.933.011.00.00	Maileguen amortizazioa	692.062,58	6.000,00	686.062,58
<b>GUZTIRA KAP 9</b>		<b>692.062,58</b>	<b>6.000,00</b>	<b>686.062,58</b>
	<b>GUZTIRA</b>	<b>1.471.562,58</b>	<b>55.200,00</b>	<b>1.416.362,58</b>

Zuzendutako taula atxikitu behar da abenduaren 1eko Bilkura osoaren aktara.”



AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

2022ko abenduaren 1eko bilkurako aktaren bozketaren emaitza, aipatutako zuzenketa eginda, honakoa da:

**Aldeko botoak:** Javier Zubizarreta Zubizarreta, Ana Azkoitia Urteaga, Marijose Arregi Etxeberria, Imanol Arrizabalaga Larrañaga, Sonia Vazquez Tejerina, Angel Luis Martin Rodriguez, Mertxe Zubillaga Albizu, Juan Bautista Mendizabal Juaristi,, Mikel Zengotita Alberdi, Iraitz Otaño Mujika, Laida Beristain Zubizarreta, Itziar Joaristi Olariaga, Angel M<sup>a</sup> Etxeberria Ibarguren, Janire Igoa Merino eta Jose Joakin Etxaniz Peña.

**Abstentzioak:** Ainara Goenaga Andueza eta Ane Miren Peña Larrañaga.

Beraz, Udalbatza Osoak 2022ko abenduaren 1ean egindako bilkuraren akta onartzea gehiengoz erabaki du.

2022ko abenduaren 22ko bilkurako aktaren bozketaren emaitza honakoa da:

**Aldeko botoak:** Javier Zubizarreta Zubizarreta, Ana Azkoitia Urteaga, Marijose Arregi Etxeberria, Imanol Arrizabalaga Larrañaga, Sonia Vazquez Tejerina, Angel Luis Martin Rodriguez, Mertxe Zubillaga Albizu, Juan Bautista Mendizabal Juaristi, Mikel Zengotita Alberdi, Iraitz Otaño Mujika, Laida Beristain Zubizarreta, Ainara Goenaga Andueza, Angel M<sup>a</sup> Etxeberria Ibarguren, Janire Igoa Merino eta Jose Joakin Etxaniz Peña.

**Abstentzioak:** Itziar Joaristi Olariaga eta Ane Miren Peña Larrañaga.

Beraz, Udalbatza Osoak 2022ko abenduaren 22an egindako bilkuraren akta onartzea gehiengoz erabaki du.

## **2.- AZKOITIKO HIRI ANTOLAKETAKO ARAU SUBSIDIARIOEN TESTU BATEGINAREN 5. ALDAKETAREN BEHIN BETIKO ONESPENA.**

Honako irizpena aurkeztu da:

**“LURRALDE ANTOLAKUNTZA, INGURUMENA, LANDA GARAPENA, OBRAK ETA ZERBITZUETAKO BATZORDE INFORMATIBOAREN IRIZPENA**



AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

**AZKOITIKO HIRI ANTOLAKETAKO ARAU SUBSIDIARIOEN 5. ALDAKETA ZEHATZA: 10. SEKTOREA "TXALON ERREKA EKIALDEA", 13. AREA "INSAUSTI", eta ARAUDI OROKORRA. BEHIN BEHINEKO ONESPENA.**

Azkoitiko Udala sustatzen ari da Hiri Antolaketako Arau Subsidiarioen testu bateginaren (AASS 2007) 5 aldaketa puntuala.

Aurrekari gisa, hona hemen gaur egun indarrean dauden Hiri Antolaketako Arau Subsidiarioen bilakaeraren eskema:

- Jatorrizko testua: Hiri Antolaketako Arau Subsidiarioen testu bategina, onartua Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluak, 2007ko ekainaren 19ko saioan (GAO 193. zk., 2007ko urriak 2).
- 1 aldaketa: Osoko bilkurak onartua 2010eko ekainaren 22ko osoko bilkuran (GAO 146. zk., 2010eko abuztuaren 3koa). Araudi orokorrari eta A-2 Ensantxea, A-3 San Martin, A-4 Floreaga, A-14.2 Ugarte Igara, A-19 Juin eta AU21 GSBAcero eremuei eragin zien.
- 2 aldaketa: Osoko bilkurak onartua 2012ko azaroaren 12an (GAO 6 zk., 2013ko urtarrilaren 9koa). A-19 Juin eta S-27 Eginoberrri eremuei eragin zien.
- 3 aldaketa: Osoko bilkurak onartua 2015eko urriaren 28ko bilkuran (GAO 234 zk., 2015eko abenduaren 7a). Eragin zien araudi orokorrari, lurzoru urbanizaezinari, Zabale 16. Sektoreari eta Oinartxo 26. Sektoreari.
- 4 aldaketa: Osoko bilkurak onartua 2020ko uztailaren 20an (GAO 193 zk., 2020ko urriaren 8koa). Behin betiko onarpena partziala izan zen eta eragin zien San Juan 24 eremuari, basarte 25 eremuari eta San Martin 3 eremuari. Tramitazioko dokumentuetan landutako hainbat zehaztapenek oraindik ez dute jaso behin betiko onarpena.

Tramitatzen ari den 5 aldaketa puntualaren funtsezko edukia da araudi orokorraren hainbat artikulua aldatzea eta bi esparruren artean kalifikazio aldaketa bat burutzea – 10 HE.- Txalon Erreka Ekialdea eta 13 HE.- Intxausti -.

Osoko bilkurak 2022ko irailaren 28an egindako bilkuran erabaki zuen herritarren parte hartze programa onartzea. 2022ko azaroaren 7ko GAO n argitaratu zen.

Osoko bilkurak 2022ko irailaren 28an erabaki zuen hasiera batean onartzea Azkoitia udalerriko Hiri Antolaketako Arau Subsidiarioen testu bateginaren (2007/10/02ko GAO) 5. aldaketa puntuala. Halaber, erabaki zuen informazio publiko epe bat irekitzea, arlo eskumenak dituzten administrazioei txostenak eskatzea eta lizentziak emateko etendura ezartzea.

Informazio publiko irekitzeko iragarkiak argitaratu ziren 2022ko azaroaren 7ko GAO n, hedabideetan, iragarki taulan eta udal webgunean. Epe horretan dokumentua udal webgunean egon da ikusgai. Ondoko alegazioak jaso dira:



AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

- 2022/12/05. 2022-5699 sarrera erregistroa. LAGUN MACHINE TOOLS, SL.
- 2022/12/07. 2022-5708 sarrera erregistroa. SAMMIC, SL.
- 2022/12/07. 2022-5728 sarrera erregistroa. SORALUCE HERMANOS, SA
- 2022/12/07. 2022-5732 sarrera erregistroa. J.A.G.

Arlo eskumenak dituzten administrazio hauen txostenak jaso dira:

- 2022/11/17. 2022-5419 sarrera erregistroa. Gipuzkoako Foru Aldundia. Bide azpiegituretako departamendua.
- 2022/11/17. 2022-5421 sarrera erregistroa. Gipuzkoako Foru Aldundia. Bide azpiegituretako departamendua.
- 2022/11/22. 2022-5499 sarrera erregistroa. Ministerio de Industria, Comercio y Turismo. Secretaría General de Telecomunicaciones y ordenación de los servicios de comunicación audiovisual.
- 2022/12/01. 2022-5629 sarrera erregistroa. Gipuzkoako Foru Aldundia. Kultura, Lankidetzeta, Gazteria eta Kirol departamentua. Ondare historiko artistikoa.
- 2022/12/02. 2022-5662 sarrera erregistroa. Eusko Jaurlaritzeta. Kultura Ondarearen Zuzendaritza.
- 2022/12/12. 2022-5786 sarrera erregistroa. URA agentzia.

2022ko azaroaren 24an ospatu ziren Hirigintza Aholku Batzordearen bilera, eta Herritarren parte hartze programan (210. GAO, 2022ko azaroaren 7koa) jasotako bilera irekia ere. Ekarpen batzuk jaso ziren.

Alegazioen erantzun txostenak prestatu ditu talde idazleak eta ondorioztatu du egokia dela horiek ezeztatzea. Txosten horiek erantsiko zaizkio behin betiko onarpen akordioaren jakinarazpenari, motibazioa azaltzeko.

Arlo eskumenak dituzten administrazioen txostenetan lotesle bezala jasotako zehaztapenak hirigintza agirian jaso beharko dira.

Ingurumen ebaluazioari dagokionean, ingurumen organoak ebatzi du ez dela aurreikusten aldaketa honek ondorio kaltegarri nabarmenik izango duenik ingurumenean, beti ere ingurumen txosten estrategikoan finkatutako neurri babesle eta zuzentzaileak hartzen badira. Ingurumen txosten estrategikoa onartu zuen ebazpena 2022ko urriaren 7ko EHAAn argitaratu zen: Ebazpena, 2022ko irailaren 2koa, Ingurumenaren Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren zuzendariarena, zeinaren bidez formulatzen baita Azkoitiko (Gipuzkoa) arau subsidiarioen barruko bosgarren aldaketa puntualari buruzko ingurumen-txosten estrategikoa.

Talde idazleak behin behineko onarpenerako dokumentua aurkeztu du, jasotzen dituen aipatutakoen ondoriozko aldaketak, bai eta hobekuntza tekniko batzuk ere.

Bulego teknikoak txostena egin du eta ondorioztatu du egokiak direla talde idazleak prestatutako alegazioen erantzunak eta egokia dela behin behineko onarpena emateko aurkeztutako dokumentua. Egindako aldaketek ez dute aldatzen hasiera batean onartutako dokumentuaren



AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

funtsa.

Behin behineko onarpena ematea Osoko Bilkurari dagokio, gehiengo absolutuarekin, hala jasotzen baita Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 22.2.c eta 47.2. II artikuluetan.

Dokumentuak behin behineko onarpena jaso ondoren, Hirigintza eta Lurzoruari buruzko 2/2006 Legearen 90 eta 91 artikuluetan xedaturiko izapidetzearen arabera, igorriko zaio EAEko Lurralde Antolamendurako Batzordeari, dagokion txostena egin dezan. Txostena loteslea izango da instrumentua lurralde-antolamenduko tresnei egokitzeari dagokionez eta, aplikagarri den araudiaren arabera eta onartutako udalez gaineko proiektuen arabera, Estatuko, Autonomia Erkidegoko edo lurraldeko administrazioaren eskumeneko diren alderdi sektorial guztiei egokitzeari dagokionez.

Beraz, oinarrituta aipatutakoetan, ikusita Hirigintza eta Lurzoruari buruzko 2/2006 Legearen 90 eta 104 artikulua eta 46/2020 Dekretua, martxoaren 24koa, lurralde-antolamenduko planak eta hirigintza antolamenduko tresnak onartzeko prozedurak arautzen dituenaren 28 eta 36 artikulua, eta kontuan hartuta txosten teknikoa eta juridikoa, Azkoitiko Udaleko Lurraldea Batzorde Informatiboak Osoko Bilkurari proposatu dio ondoko hau onartzea

#### IRIZPENA

LEHENA.- Informazio publiko epean jasotako alegazioen erantzun gisa talde idazleak egindako txostenak onartzea eta ondorioz alegazioak ezeztea.

BIGARRENA.- Behin behineko onarpena ematea ondoko hirigintza antolamendu instrumentuari: Azkoitia udalerriko Hiri Antolaketako Arau Subsidiarioen testu bateginaren (2007/10/02ko GAO) 5. aldaketa puntuala – behin behineko onespeneko dokumentua.

HIRUGARRENARI.- EAEko Lurraldearen Antolamenduko batzordeari espedientea igortzea, dagokion txostena egin dezan.

LAUGARRENA.- Erabaki hau jakinaraztea alegaziogileei.

#### ALEGAZIOEN ERANTZUN TXOSTENAK



AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

**LAGUN MACHINE TOOLS S.L.k AURKEZTUTAKO ALEGAZIOEI  
BURUZKO TXOSTENA**

**AZKOITIKO PLANGINTZAKO ARAU SUBSIDIARIOEN 5.  
ALDAKETA**

**ALEGAZIOAREN EDUKIA:**

. Planeamenduko Arau Subsidiarioen 4. Aldaketan idatzita geratu zen bezala, San Juan 24 Areako Hirigintza Fitxan Zuzkidura Jarduketaren oinplanoko okupazioari dagokionez akats aritmetiko bat dagoela alegatzen du. Honen zuzenketa eskatzen da.

**ALEGAZIOAREN ERANTZUNA:**

. Planteatzen duen gaiak ez du zerikusirik Plangintzako Arau Subsidiarioen Aldaketa honekin, eta beraz, dagokion administrazio-espeditentean ebatzi beharko da.

. Alegazioa bere osotasunean ezestea proposatzen da.

Azkoitia, 2.022ko abendua.

BEB ARKITEKTOAK

Iñaki Berasategi Aseginolaza  
Arkitektoa

Xabier Berasategi Aseginolaza  
Arkitektoa

Altor Gabillondo Ruiz  
Abokatua

Elisabeth Ena Arbulu  
Arkitektoa



AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

**INFORME ALEGACIONES PRESENTADAS POR SAMMIC S.L.**

**5ª MODIFICACION DE LAS NORMAS SUBSIDIARIAS DE  
PLANEAMIENTO DE AZKOITIA**

**CONTENIDO DE LA ALEGACION:**

. Alega que existe una errata en la Ficha Urbanística del Area 25 Basarte del Texto Refundido de las Normas Subsidiarias de Planeamiento (Año 2.007), en relación a la parcela de su titularidad, tanto en cuanto al aprovechamiento previsto, así como en lo referente a la ocupación en planta, según se recogían ya en los proyectos de compensación y reparcelación redactados antes y después de la aprobación del citado instrumento de planeamiento. Se solicita la subsanación.

**RESPUESTA A LA ALEGACION:**

. La cuestión que plantea no guarda relación con la presente Modificación de las Normas Subsidiarias de Planeamiento, por lo que deberá ser resuelta en el correspondiente expediente administrativo.

Se propone desestimar la alegación en su integridad.

Azkoitia, diciembre de 2.022.

BEB ARKITEKTOAK

Iñaki Berasategi Aseginolaza  
Arquitecto

Xabier Berasategi Aseginolaza  
Arquitecto

Aitor Gabiñondo Ruiz  
Abogado

Elisabeth Ena Arbulu  
Arquitecto





AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

**INFORME ALEGACIONES PRESENTADAS POR**  
**SORALUCE HNOS. S.A.**

**5ª MODIFICACION DE LAS NORMAS SUBSIDIARIAS DE**  
**PLANEAMIENTO DE AZKOITIA**

**CONTENIDO DE LA ALEGACION:**

- . Alega vulneración del art. 103, Apartado 4, de la Ley 2/2.006, de 30 de Junio, de Suelo y Urbanismo, así como de la Ley 2/.014, que modifica la anterior, en lo referente a la adaptación de los instrumentos de planeamiento estructural.
- . Falta de motivación.
- . La transferencia de edificabilidad vulnera los principios de cohesión social ligado al de cohesión territorial.

**RESPUESTA A LA ALEGACION:**

- . Como bien se señala al inicio de la propia alegación la mercantil, efectivamente, mantiene un litigio con el Ayuntamiento respecto al Proyecto de Reparcelación de la U.E. 13.1 Insausti, lo cual, evidentemente, condiciona el contenido de las alegaciones presentadas, pues habrá que entender que las mismas se enmarcan en dicha controversia.



AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

. No existe vulneración alguna del art. 103, Apartado 4 de la Ley 2/2.006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo. En cuanto a la no adaptación de las vigentes NN.SS. de planeamiento en plazo a las determinaciones establecidas en la Ley 2/2.006, según determina la Ley 2/2.014 debe señalarse que con carácter previo a la aprobación inicial del documento se han iniciado los trámites para la redacción de dicha adaptación, pues así viene determinado por la propia Comisión de Ordenación del Territorio del País Vasco.

. La justificación de la transferencia de edificabilidad de VPO-Viviendas Libres entre el Sector 10 Txalon Erreka y el Area 13 Insausti se considera suficientemente desarrollada, a partir del contenido de la Memoria del Documento y del Convenio de colaboración suscrito en fecha 31 de Mayo de 2.021 entre el Ayuntamiento de Azkoitia, la Sociedad municipal Azkoitia Lantzen S.A. y la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco (Departamento de Planificación Territorial, Vivienda y Transportes) que forma parte del presente Proyecto como Anexo al mismo.

Como bien se señala en la Pág. 6 del Proyecto, *Por dicho motivo, las partes firmantes del citado Convenio acordaron destinar la totalidad de dichas parcelas a la promoción de viviendas de protección pública, en el marco de la política de vivienda del Departamento de Planificación Territorial, vivienda y transportes del Gobierno Vasco, conforme a los criterios establecidos en la Ley 3/2.015, de 18 de Junio, de Vivienda, siendo necesaria la modificación del planeamiento urbanístico en lo que se refiere a la Parcela P-1 antes citada, en la actualidad destinada a vivienda libre, tal y como se prevé en la Cláusula Cuarta del Convenio, mediante una transferencia de dicha edificabilidad por la de vivienda protegida sita en una de las parcelas del Area 13 Insausti, más concretamente en la Parcela B.4.1 del Plan Especial de Reforma Interior modificado del referido ámbito, función que corresponde al Ayuntamiento de Azkoitia a través del presente Proyecto.*



AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Al respecto, baste recordar lo que dice la S.T.S. de 23 de Abril de 1.997 (Rec. Nº 11860/1991), en su FJ Quinto: *“QUINTO.- En lo que se refiere al contenido de la Memoria de la modificación del Plan, la reputamos suficiente a los efectos pretendidos. Debe tenerse presente que la modificación de que se trata no constituye una modificación global del Plan, una modificación de los criterios básicos de éste, que habría de requerir una justificación del nuevo modelo urbanístico elegido, sino que se trata de modificaciones muy puntuales y de alcance muy modesto (v.g. la nº 5, sobre "anchura del Callejón del Campillo", o la nº 17, sobre "alineaciones en la Pedanía de Pozo Cañada", etc), que, por su alcance nimio en el contexto del Plan General, apenas si necesitan como justificación la que efectivamente tienen ....”*

. Finalmente, debe descartarse la vulneración del principio de cohesión social vinculado al principio de cohesión territorial, tanto por razones cualitativas, como cuantitativas.

Debe recordarse, en primer lugar, que la transferencia de edificabilidad de VPO-Viviendas Libres entre el Sector 10 Txalon Erreka y el Area 13 Insausti es acordada, precisamente, con la Administración responsable de velar por los principios aludidos anteriormente, el Departamento de Vivienda del Gobierno Vasco.

Ambos ámbitos urbanísticos, además, acogen parcelas vinculadas a la promoción de vivienda protegida, teniendo en cuenta, por otra parte, que cada uno de ellos ostenta una diferente clasificación urbanística, urbano no consolidado y urbanizable, con diferentes estándares urbanísticos en cuanto a vivienda protegida se refiere.

Debe añadirse a ello que en el marco del proceso de revisión de las vigentes Normas Subsidiarias de Planeamiento de Azkoitia, la previsión de un gran número de viviendas protegidas en el Sector 10 Txalon Erreka, se efectuó conforme a lo establecido en el art. 5 de la Ley 17/1.994, de 30 de Junio, de medidas urgentes en materia de vivienda y tramitación de instrumentos de planeamiento y gestión.



AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Y por último, y desde un punto de vista cuantitativo, los principios a los que se alude en la alegación no se ven en modo alguno infringidos o vulnerados, toda vez que dicha transferencia afecta a una superficie sobre rasante que afectaría, como máximo, a un número aproximado de 16 viviendas, teniendo en cuenta que en el Area 13 Insausti la previsión es que se desarrollen aproximadamente 390 viviendas; y en el Sector 10 Txalon Erreka 592 viviendas

Se propone desestimar la alegación en su integridad.

Azkoitia, diciembre de 2.022.

BEB ARKITEKTOAK

Iñaki Berasategi Aseginolaza  
Arquitecto

Xabier Berasategi Aseginolaza  
Arquitecto

Elisabeth Ena Arbulu  
Arquitecto

Aitor Gablondo Ruz  
Abogado



**INFORME ALEGACIONES PRESENTADAS POR D. JON ALDALUR  
GOENAGA**

**5ª MODIFICACION DE LAS NORMAS SUBSIDIARIAS DE  
PLANEAMIENTO DE AZKOITIA**

**CONTENIDO DE LA ALEGACION:**

- . Alega que el documento no contiene toda la documentación.
- . El proyecto trata de legalizar una actuación ilegal (piscina en cubierta plana) que se encuentra "sub iudice".
- . Contradicción en la Memoria del documento aprobado "inicialmente" en Mayo de 2.022, con el que se aprueba inicialmente en este momento en Septiembre de 2.022.
- . Solicita se le notifique personalmente todas las actuaciones en el procedimiento dada la condición de interesado en el mismo.

**RESPUESTA A LA ALEGACION:**

- . El proyecto contiene toda la documentación precisa, incluido el Resumen Ejecutivo del mismo, sin que de la lectura del Informe del Arquitecto Municipal pueda deducirse que ello no es así.
- . Las modificaciones del articulado de la Normativa General de las vigentes Normas Subsidiarias de planeamiento atienden a la vocación de generalidad que preside el planeamiento urbanístico general del municipio, pues las mismas van destinadas a ser aplicadas en los edificios de uso residencial que pudieran estar afectadas.

No cabe, por otro lado, invocar el art. 106 de la Ley 2/2.006, de 30 de Junio, de Suelo y Urbanismo, pues ninguna actuación urbanística a la que se refiere la alegación ha sido declarada ilegal por ningún Juzgado o Tribunal.



AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Tal y como se expone en el propio documento, la modificación propuesta tiene como objetivo corregir la indeterminación observada en la regulación actual, considerando, por otra parte, que la autorización expresa de dicho uso dota de mayor seguridad jurídica al planeamiento. El Ayuntamiento, por otra parte, considera adecuado que la posibilidad de ejercer usos como el presente resultan ser positivos para los usuarios en edificios de uso residencial, pues suponen dotarlos de más y mejores servicios, siempre que la actividad de los mismos se ejerza con las debidas garantías y en cumplimiento de todas las condiciones técnicas legalmente aplicables.

. No existe contradicción alguna entre el documento fechado en Mayo de 2.022, y el documento de aprobación inicial fechado en Septiembre de 2.022, puesto que son documentos diferentes y con un objetivo distinto. El primero de ellos da cumplimiento sobradamente a lo establecido en el art. 29, 1 de la Ley 21/2.13, de 9 de Diciembre, de Evaluación Ambiental, que únicamente exige la remisión de un borrador del plan que se adjuntó al Documento Ambiental Estratégico para dar inicio al procedimiento de evaluación ambiental (Que culminó con la Resolución del Director de Calidad Ambiental y Economía Circular del Departamento de Desarrollo Económico, Sostenibilidad y Medio Ambiente de 5 de Septiembre de 2.022, por la que se formuló Informe Ambiental Estratégico).

Y el segundo, es el documento urbanístico en sí, que es el que se somete a aprobación inicial por parte del Ayuntamiento y su posterior exposición pública, así como su remisión al resto de administraciones sectoriales para la formulación de los informes respectivos.

. Por otra parte, debe recordarse que el planeamiento urbanístico general es un instrumento urbanístico de carácter normativo que, per sé, está dirigido a una pluralidad indeterminada de personas interesadas, es decir, la población en general, por lo que no resulta pertinente la notificación personal a interesados en concreto, como pretende la alegación, dando cumplimiento a lo legalmente procedente mediante la publicación de los correspondientes anuncios en el Boletín Oficial correspondiente.



AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

En este caso, debemos traer a colación lo manifestado por la S.T.S. de 2.017 (RC 2228/2016), que aborda la notificación individual en el planeamiento urbanístico, partiendo de la regla general de su no necesidad.

Dice así:

*"El motivo debe de ser rechazado, de conformidad con el criterio establecido por la STS de 30 de noviembre de 2011 (RC 5935/2008 ), en la que expusimos que "... es línea jurisprudencial consolidada la que declara que en la tramitación del planeamiento general no es exigible, como requisito de eficacia de los acuerdos que en dicho procedimiento se adopten, su notificación personal a cada uno de los posibles interesados o afectados por la ordenación, como se indica en las Sentencias de 11 de octubre de 2000, RC nº 2349/1998 , 10 de julio de 2002, RC nº 3098/2000 , 20 de febrero de 2003, RC nº 8850/1999 , 1 de febrero de 2005, RC nº 8/2001 , 12 de noviembre de 2010, RC nº 2686/2006 y 12 de mayo de 2011, RC nº 4829/2007.*

En consecuencia, a salvo de la preceptiva notificación personal de las respuestas a las alegaciones presentadas por el Sr. Aldalur, no procede estimar la solicitud presentada sobre el particular.

. Ha de señalarse también, y al hilo de lo manifestado con anterioridad, que la presente modificación tiene una vocación de generalidad que es propia del planeamiento general del municipio y clara expresión del *ius variandi* que le corresponde al órgano administrativo promotor de la misma, por lo que nada tiene que ver con procedimientos judiciales en los que está inmerso el alegante y que, lógicamente, deben seguir su curso. Más aun cuando lo que se pretende es mejorar el texto vigente.

. No existe contradicción entre el documento aprobado y los informes que eventualmente consten en el expediente. La motivación de las modificaciones está suficientemente expuesta en el documento y a la misma debemos atenernos. La modificación del art. 57 afecta a otros preceptos del documento Normativa



AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

General, que por el más elemental principio de coherencia del mismo (Art. 7 Ley 2/2.006, de 30 de Junio, de Suelo y Urbanismo), deben ser adaptados también.

. La suspensión del procedimiento, además de ser desproporcionada, resulta improcedente pues obedece a meros intereses particulares.

Se propone desestimar la alegación en su integridad.

Azkoitia, diciembre de 2.022.

BEB ARKITEKTOAK

Iñaki Berasategi Aseginolaza  
Arquitecto

Xabier Berasategi Aseginolaza  
Arquitecto

Elisabeth Ena Arbulu  
Arquitecto

Aitor Gablondo Ruiz  
Abogado

Ana Azkoitia andreak hitza hartu eta adierazi du atal honetan proposatzen dela Azkoitiko Hiri Antolaketako Arau Subsidiarioen testu bateginaren 5. aldaketaren





AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

behin behineko onespena eta informazio publikoko epean jasotako alegazioak ezeztatzea.

Gogorarazi du, alegazioak deuseztatzeko txostenak Lurralde Batzordean aurkeztu eta azaldu zirela.

Jose Joakin Etxaniz jaunak hitza hartu du eta honako hau adierazi du:  
*“Haserako onespenean esan genuen, bizileku duin bat bermatze aldera, etxebizitza libre bat ordaindu ezin dutenentzat, aldaketa honek, babestutakoak, epe laburrago batean eraikitzea ekarriko balu, alde bozkatuko genuela, baina hori zuen esku ez dagoela garbi jakinarazi zeniguten, eta beste abantaila esanguratsurik ikusten ez diogunez, aurka bozkatuko dugu.”*

Ainara Goenaga andreak hitza hartu eta jakinarazi du EH Bildu udal taldeak akordioaren kontra bozkatuko duela, Hiri Antolaketako Arau Subsidiarioaren testu bateginaren arabera etxebizitza libreak Intsaustin kokatuko liratekeelako eta babes ofizialekoak Txalonerrekan. Bere ustez bi motatako etxebizitza eraiki beharko lirateke bi auzoetan.

Ana Azkoitia andreak hitza hartu eta Ainara Goenaga andreari adierazi dio, hori esatea gehiegi iruditzen zaiola, kasu honetan soilik 14 etxebizitza aldatuko baitira.

Bestalde, Jose Joakin Etxaniz jaunari baieztatu dio etxebizitza motak auzo batean ala bestean eraikitzea ez dagoela Udalaren esku eta horregatik egiten dutena Eusko Jaurlaritzatik adierazitakoa.

Alkate Jk.k adierazi du 14 etxebizitza aldatuko direla nabarmentzea inportantea dela, eta denbora pasa ahala ikusiko dela Azkoitian mota anitzezko



AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

etxebizitzak egongo direla: libreak, babes ofizialekoak, alokatzekoak, etab.

Bozketaren emaitza honakoa da:

**Aldeko botoak:** Javier Zubizarreta Zubizarreta, Ana Azkoitia Urteaga, Marijose Arregi Etxeberria, Imanol Arrizabalaga Larrañaga, Sonia Vazquez Tejerina, Angel Luis Martin Rodriguez, Mertxe Zubillaga Albizu, Juan Bautista Mendizabal Juaristi eta Janire Igoa Merino.

**Kontrako botoak:** Ainara Goenaga Andueza, Mikel Zengotita Alberdi, Laida Beristain Zubizarreta, Itziar Joaristi Olariaga, Ane Miren Peña Larrañaga, Angel M<sup>a</sup> Etxeberria Iburguren eta Jose Joakin Etxaniz Peña.

Beraz, Udalbatza Osoak Azkoitiko Hiri Antolaketako Arau Subsidiarioen testu bateginaren 5. aldaketa behin behinekoz onartzea gehiengoz erabaki du.

**3.- AZKOITIKO UDALAREN EMAKUME ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO III. PLANAREN 2023-2027 ONESPENA.**

Honako irizpena aurkeztu da:

**“GIZARTEA BATZORDEA: GIZARTE ZERBITZUAK, BERDINTASUNA, PREBENTZIOA, INTEGRAZIOA, HEZKUNTZA ETA EUSKARA**

**IRIZPENA**

**GAIA: EMAKUME ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO III.PLANA 2023-2027**

**I. AURREKARIAK**

Emakumeek eta gizonek gizartean tradizioz izan duten eginkizunak aldaketa nabarmena izan du azken hamarkadetan, eta benetako berdintasuna lortzeko bidean aurrera egiten ari badira ere, emakumeen eta gizonen arteko ezberdintasunak gaur egungo gizartearen arazoa eta errealitatea izaten jarraitzen du. Hainbat datuk erakusten duten moduan, emakumeen egoera okerragoa da. Horren adibide dira, besteak beste, genero-indarkeria; enplegu



AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

garrantzitsuak eskuratzeko eskasia; eskubideak, baliabide sozialak eta ekonomikoak esku hartzeko, kontrolatzeko eta erabiltzeko falta; garapen pertsonal eta profesional txarragoa; partaidetza soziopolitiko txikiagoa; etxeko lanetan eta zainketetan lan handia izatea, eta abar.

Horregatik, Azkoitiko Udalak, 2011. urtetik emakumeen eta gizonen berdintasunerako bi plan diseinatu eta onartu ditu. Plan horien testuinguruan, aurrerapausoak eman dira bai udal politketan genero-ikuspegia txertatzeari dagokionez, bai herritarrek sentsibilizatzeari dagokionez.

II. Berdintasun planaren indarraldia (2018-2021) agortu ondoren, oraindik bide luzea dago emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasuna lortzeko eta gai hauek lantzen jarraitu behar da:

- Udal politikan eta programetan genero ikuspegia bermatzea.
- Pertsonen sexuaren arabera egotzitako genero estereotipoak eta rola eraldatzea.
- Emakumezkoen boteretze prozesuak laguntzea.
- Kontziliazio erantzunkidearen zein zaintzaren etika bultzatzea.
- Emakumeen aurkako indarkeria matxistaren inguruan ezagutza eta sentsibilizazioa handitzea eta biktimizekiko arreta hobetzea.

COVID-19aren ondorioz, azken aldiko osasun-, ekonomia- eta gizarte-krisi garrantzitsuena gertatu da, eta agenda eta lehentasun politiko eta sozialak aldatu dira mundu osoan. Hori gutxi balitz, Errusiaren eta Ukrainaren arteko gerrak eragindako krisia gehitu behar zaio egoerari.

Krisi horiek desberdin eragiten ari dira emakumeengan eta gizonengan. Horregatik, premiazkoa da berdintasunerako III. Plana onartzea genero-ikuspegia txertatzen duten neurriak hartzeko, desberdintasunak areagotu ez daitezen eta orain arte egindako bidean atzera pausorik eman ez dadin.

## II. LEGE MARKOA

Berdintasunaren eremua arautzen duten legezko xedapen guztiak aplikatu dira planaren diseinuan.

- 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Tokiko Oinarriak arautzen dituena

28.1 artikulua.

*“Estatuko Administrazioak, autonomia-erkidegoetakoak eta beste toki erakunde batzuetakoak, udalerriei eman diezaiekete beren interesei ukitzen dieten gaietan eskumena gauzatzeko eskuordetza, baldin eta horrekin herri kudeaketaren eraginkortasuna hobetzen bada eta herritarrek gehiago parte hartzen badute(...).”*



AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

- 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa.

7.1. artikulua.

*“Emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan, Euskal Autonomia Erkidegoko udalei dagokie, bai banaka, bai partaide diren udal-mankomunitateen bidez edo lege honetako xedeetarako eratzen dituzten mankomunitateen bidez, ondoko eginkizunak betetzea: a) Azpiegiturak, programak eta prozedurak egokitu eta sortzea, genero-ikuspegia beren administrazioan integratze aldera (...)”.*

15.3. artikulua

*“(...) Foru-aldundiek eta udalek berdintasunerako planak eta programak onetsiko dituzte, Eusko Jaurlaritzaren plangintza orokorrean ezartzen diren jarraibide eta gidalerroekin bat; halaber, eta horretarako beharrezkoak diren baliabide materialekin eta ekonomia eta giza baliabideak eskainita, beren sail, erakunde autonomo eta menpean edo lotuta dituzten gainerako erakunde publikoetan aipatutako planek eta lege honek jasotzen dituzten neurriak benetan eta modu koordinatuan betetzen direla bermatuko dute (...)”.*

- 3/2007 Lege organikoa, martxoaren 22koa, emakumeen eta gizonen egiazko berdintasunerako.

21.1 artikulua.

*“(..) tokian tokiko erakundeek berdintasun-eskubidea barneratuko dute euren eskumenetan eta gainerako Herri Administrazioei lagunduko diete zentzu horretan”.*

- EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Plana. XI. Legegintzaldiko jarraibideak.

### III.- PLANAREN XEDEA

Azkoitiko III. Berdintasun Planak, 4 urteko iraupena izango du eta lehendik zeuden tokiko planen bidez garatutako berdintasun politiken diagnostikoaren eta ebaluazioaren ondorioa da.

Plana Azkoitiko udalerrian berdintasuna bermatzeko egin behar diren helburu eta ekintzen lan-gida da. Finkatutako ekintzak bat datoz EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Planaren printzipioekin baita lan-estrategiekin ere. Planaren proposamenak herritarrei eta Udalaren barne kudeaketari zuzentzen zaizkie :

#### GOBERNU ONA

- Berdintasunarekiko konpromiso politikoa indartzea.
- Parte-hartzea eta eragina sustatzea.
- Udaleko langileen berdintasunerako gaitasuna handitzea.



AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

- Udal-kudeaketan genero-zeharkakotasuna sustatzea.

#### EMAKUMEEN AHALDUNTZEA

- Emakumeen ahalduntze pertsonala, kolektiboa, soziala eta politikoa hobetzea, aniztasunetik abiatuta.
- Azkoitiko emakumeen memoria historikoa berreskuratzea.

#### EKONOMIA ETA GIZARTE ANTOLAKUNTZA ERALDATZEA

- Herritarrek berdintasunaren arloan duten sentsibilizazio-maila hobetzea.
- Herritarrak sentsibilizatzea erantzunkidetasunaren garrantziaz eta zainketen balioaz.
- Emakumeen autonomia sozioekonomikoa sustatzea.

#### EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIARIK GABEKO BIZITZAK

- Indarkeria matxistaren prebentzioa lantzea.
- Biktima diren emakumeen babesa eta arreta osoa bermatzea.

### IV.- IKUSIRIK

*Emakume eta gizonen berdintasunerako III. PLANA 2023-2027* onartzeko egutegia finkatuta dago, jada, eta aurreikusten da plan bera 2023ko urtarrilaren 25an egingo den Osoko Bilkuran onartua izatea.

Hori horrela, eta Osoko Bilkuraren mandatuz, berdintasunerako estrategia horiek martxan jarri beharko dira 2023. urtean, baita ere koordinaziorako udal arlo ezberdinen ordezkarien gunea; izan ere, hurrengo 4 urteetarako Azkoitiko Udalak erronka handia du planean jasotzen diren ekintza guztiak aurrera eraman nahi baditu.

**Batetik**, 2022ko irailaren 29an, talde eragilean plana aurkeztu zen. Urriaren 4an, bilera bat egin zen plana Udaleko langile guztiei aurkezteko eta hilaren 6an, prozesuan parte hartu duten eragileei eta herritar guztiei zuzendutako aurkezpen-bilera egin zen. Ondoren, 15 eguneko epea eman zen planari azken ekarpenak egiteko.

**Bestetik**, 2022ko abenduaren 20an, berdintasun teknikariak Gizartea Batzordeko kideei plana aurkeztu zien, alderdi teknikoari buruzko zalantzak argituz.

**Azkenik**, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2. artikuluan xedatutakoaren arabera, onespena Udalbatza Plenoaren eskumena da.

Hori horrela, Gizartea Batzordeak (Gizarte Zerbitzuak, Berdintasuna, Prebentzioa, Integrazioa, Hezkuntza eta Euskara), 2023ko urtarrilaren 11n egindako bileran, gaia aztertu eta irizpena hau eman zuen, honako emaitza honekin:

### Aldeko botoak:

*Janire Igoa Merino (PSE).*



AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Mertxe Zubillaga Albizu (EAJ).  
Marijose Arregi Etxeberria (EAJ).  
Sonia Vázquez Tejerina (EAJ).  
Iraitz Otaño Mujika (EH BILDU).  
Jose Joakin Etxaniz Peña (AZKOITIA BAI).

### **Kontrako botoak:**

### **Abstentzioak:**

Aurreko guztia kontuan izanda, organo eskuduna den Udalbatza Plenoari honako irizpen hau onartzea proposatu dio Gizartea Batzordeak:

### **IRIZPENA**

**LEHENA.-** Azkoitiko Udalaren Emakume eta Gizonen Berdintasunerako III. Plana 2023-2027 (testu osoa eranstean zaio).

**BIGARRENA.-** Erabaki hauek Udaletxeko iragarki taulan eta Azkoitiko Udalaren web-orrian argitaratzea.”

Mertxe Zubillaga andreak hitza hartu eta adierazi du Azkoitiko Udalaren Emakume eta Gizonen Berdintasunerako III. Plana egindako lan sakonaren ondorioa dela. Gogorarazi du, ez dela arloka aplikatu behar den plana, baizik eta Udalaren osotasunean aplikatu behar dena. Hori guztiagatik, eskertu du guztion partaidetza eta aipatu du guztion artean zabaldu eta bete behar den plana dela.

Jose Joakin Etxaniz jaunak honakoa esan du: “Hurrengo lau urtetan, plan honetan zerrendatuta dauden eginkizun guztiak betetzea lortuko bagenu, berdintasunean aurrera pausuak emango genituzkeela ez dugu zalantzarik egiten. Beraz, ez gara gu izango ahalegin hauei oztopoak jarriko dizkiogunak, eta alde bozkatuko dugu.”

Bozketaren emaitza honakoa da:

**Aldeko botoak:** Javier Zubizarreta Zubizarreta, Ana Azkoitia Urteaga, Marijose Arregi Etxeberria, Imanol Arrizabalaga Larrañaga, Sonia Vazquez Tejerina, Angel Luis Martin Rodriguez, Mertxe Zubillaga Albizu, Juan Bautista Mendizabal Juaristi, Ainara Goenaga Andueza, Mikel Zengotita Alberdi, Laida Beristain Zubizarreta, Itziar Joaristi Olariaga, Ane Miren Peña Larrañaga, Angel M<sup>a</sup> Etxeberria Ibarguren, Janire Igoa Merino eta Jose Joakin



Etxaniz Peña.

Beraz, Udalbatza Osoak Azkoitiko udalaren Emakume eta Gizonen Berdintasunerako III. Planaren 2023-2027 onartzea aho batez erabaki du.

#### **4.- BEHIN BETIKO ONESPENEN BERRI EMATEA.**

Alkate jaunak honako behin betiko onespenen berri eman du:

“2022ko urriaren 26an Udalbatzak onartutakoak eta alegaziorik egon ez denez behin betikoz onartua:

- Kreditu gehigarri bidez kredituak aldatzeko Azkoitiko udaleko 6 zenbakidun espedientea.
- 2022 ekitaldiko Azkoitiko udaleko lanpostu zerrendaren 2. aldaketa.

2022ko abenduaren 1ean Udalbatzak onartutakoak eta alegaziorik egon ez denez behin betikoz onartua:

- Kreditu gehigarri bidez kredituak aldatzeko Azkoitiko udaleko 7 zenbakidun espedientea.
- Kreditu gehigarri bidez kredituak aldatzeko Zubiaurre-Elkargune Institutuko 2 zenbakidun espedientea.”

#### **5.- AURREKONTUARI BURUZKO INFORMAZIOA.**

Ondoren, aurrekontuari buruzko informazioa era honetan eman da:

	<b>Behin bet. aurr.</b> <i>Pres. def.</i>	<b>Baimendua</b> <i>Autorizado</i>	<b>Erabilia</b> <i>Dispuesto</i>	<b>Onart. oblig.</b> <i>Contraído</i>	<b>Ordainketa</b> <i>Pagado</i>
Oraingo ekitaldia/Ej. corriente GASTUAK	16.760.000,00	2.823.894,00	2.792.094,00	0,00	0,00

ESKU0785b21f-bd118-4362-8af2-cb3626f1b9f1



AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

	<b>Behin bet. aurr.</b> <i>Pres. Def.</i>	<b>Onar. esk. Garb</b> <i>Dchos. Recs..</i>	<b>Bildut-garbia</b> <i>Recaudado</i>	<b>Kobr. Dagoena</b> <i>Pte. cobro</i>	<b>Itzulketak</b> <i>Devoluciones</i>
Oraingo ekitaldia/Ej. Corriente SARRERAK	16.760.000,00	96.085,13	0,00	96.085,13	0,00

**6.- GALDE-ERREGUAK.**

Ez da galde-erregurik aurkeztu.

Aztertzeke gai gehiago ez dagoenez, Alkate jaunak bilkurari amaiera eman dio, arratsaldeko zazpiak eta hamasei direnean eta nik, Idazkariak, akta hau jaso dut, Agirien Liburura transkribatuko delarik.

**ALKATEA**

**IDAZKARIAK**

*\*Akta honen osagarria izango da, berarekin batera elektronikoki sinatzen den audioa.*





## Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

**Titulua / Título:**

2023PLEN0001-AKTA/ACTA (AZKOITIKO UDALA)